

## **IDITE, ESPEZIALITATE-TESTUETAN TERMINOLOGIA EGIAZTATZEKO TRESNA**

**Joxean Zapirain**  
(UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa)

### [AURKIBIDEA](#)

#### **Laburpena**

Komunikazio honen helburua IDITE lexiko-egiaztatzaileak lexiko orokorraren eta terminologiaren ezarpena neurtzeko lanetan izan dezakeen erabilgarritasuna erakustea da. UZEIk garatu eta eguneratzen dituen baliabide lexikoak oinarri hartuta, euskarazko testu idatzietan erabilitako lexiko arrunta zein espezializatua egiaztatzen dituen tresna da IDITE. Komunikazio honetan IDITEekin aztertutako bi adibideren emaitzak erakutsiko ditugu, eta emaitza horiek alderatuko ditugu lexiko orokorrerako eta espezializaturako arau eta gomendioekin. Azkenik, aztertutako testuetan arau eta gomendioen erabilera-mailari buruzko datuak emango ditugu.


**Gako-hitzak:** terminologia erreala, ezarpena, terminometria, lexiko-egiaztatzailea, araugintza.

### **1. Ebaluazioa terminologia-plangintzaren antolamenduan**

Dakigunez, terminologia-lana ez da amaitzen terminoak sortu eta erabiltzean, ez eta erabilitako terminoak normalizazio-prozesu batean adostu eta erabakitzean edo adostutako termino horiek sozializatzean ere. Terminologia-lanaren ikuspegi orokorrean atal garrantzitsuetako bat da terminologiaren ezarpena aztertzea, erabilera erreala neurtu eta normalizatutako terminologia zenbateraino errespetatzen edo erabiltzen den analizatzea. Azken batean, Augerrek (1986) proposatu zuen sei urratseko terminologia-plangintzaren antolamenduaren arabera <sup>1</sup>, ezarpenaren azterketak bideratu behar du normalizazio-prozesuaren hobekuntza. Augerren antolamendu hura gaur egungo euskal terminologia-plangintzara moldatu beharko bagenu, laburtuz, bost urrats hauek bereiziko genituzke:

---

<sup>1</sup> Geroztik, ISO eta UNESCOren plangintza-antolamenduak eta, besteak beste, haietan oinarrituta, NIC PHÁIDÍN eta beste batzuek (2010) proposatzen duten eskemak ere garrantzi bera aitortzen diote terminologiaren ezarpenari.



1. Irudia. Terminologia-plangintzaren eskema-proposamena

- 1) Ikerketa: Jakina denez, azken hamarkada hauetan terminotikak (Cabré 1993: 359) izan duen garapenak asko aldatu du terminologia egiteko modua, batez ere, tresna informatiko berriek terminologoiari lehendik inoiz izan ez duen erraztasuna eta baliabideak eman dizkiotelako.
- 2) Hiztegi gintza: Urruti geratu dira, esaterako, gurean oinetako-kaxetan gordetzen ziren termino-fitxa haiek, baita lan egiteko modu hark ezinbestean berekin zekarren lanketa astuna eta motela ere. Baliabide berriek lagunduta, terminologia-lanaren ekoizpenean lehen pentsaezinak ziren testu-corpus zabalak har daitezke kontuan orain, proposatzen diren terminoen arteko koherentzia egiaztatze baliabideak erabil daitezke, eta abar. Horrek guztiak, jakina, ekoizpenaren beraren bolumenean eragina izan du.
- 3) Normalizazioa: 1999an Eusko Jaurlaritzak berretsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, besteak beste, terminologia-lanaren plangintza egin behar zela agintzen zuen. Plangintza berri horren ondorio izan dira geroztik euskal terminologiaren normalizazioan berebiziko garrantzia izan duten Euskalterm Euskal Terminologia Banku Publikoaren sorrera (UZEIk 1987an sortutako terminologia-bankuaren lagapen-kontratuaren bidez) eta 2002an Euskararen Aholku Batzordearen baitan eratutako Terminologia Batzordea. Ezin ukatuzkoa da, hizkera espezializatuaren normalizazio-erakunde ofiziala den neurrian, Terminologia Batzordeak normalizazioan duen garrantzia; izan ere, besteak beste, terminologia-lanerako lehentasunak ezarri eta irizpideak finkatu baititu.
- 4) Hedapena: Azken hamarkada hauetan gero eta garrantzi handiagoa izan du sareak terminologia hedatzeko. Sarean kontsulta daitezke corpusak, datu-banku terminologiko publikoa (1987an jarri zuen Euskalterm kontsultagai sarean UZEIk), Euskaltzaindiaren arauak eta Hiztegi Batua, lexiko orokorreko nahiz espezializatutako hiztegia-aukera

zabala, itzulpen-memoriak, eta beste hainbat baliabide. Gainera, papereko edizioekiko abantaila nabarmenak ditu kontsulta telematikoak terminologia-proposamenen eguneratzea ezagutarazteari dagokionez.

- 5) Terminometria: Terminologiaren antolamenduak, edozein kudeaketa-prozesuk bezala, ebaluazio- eta kontrol-fase bat izan behar du. Hain zuzen ere, urrats honetan egiten den lanaren arabera berraztertu beharko dituzte terminologoeak beren jardunean erabilitako irizpideak:

“The ability to gather precise data on terminology implantation enables us to reexamine the initial criteria used for term selection. The terminometric study of lexical items at opposite ends of the implantation spectrum (terms fully implanted and terms not at all implanted) affords researchers a rigorous means for determining if there are factors that foster or impede the acceptance of a term into usage. QUIRION, J; LANTHIER J. (2006).”

Eta errentagarritasuna eta efizientzia edozein lan-arlotan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren honetan, zalantzan jarri ezinezkoa da proposatzen diren terminoen ezarpena neurtzea lagungarria dela terminologiaren plangintzaren arrakastarako, eta horrek bere eragina izango duela hizkuntza-normalizazioan. Bestalde, Hizkuntza Naturalaren Prozesamendurako (HNP) baliabideek, terminologia-antolamenduaren beste urratsekin gertatu den bezala, terminometria modu errentagarriagoan eta arinagoan egiteko aukera ematen dute gaur egun. Terminologia Batzordeak bere 2008rako jarduketa-planean azpimarratu zuen bezala, “beharrezkoa da aztertzea eta ezagutzea Terminologia Batzordeak onetsitako terminoen arrakasta-maila” (Eusko Jaurlaritzak 2008). Halere, terminologia-plangintzaren beste urratsetan egin diren aurrerapausoen parekorik ez da egin, gure ustez, terminometriaren arloan. Arlo horretan ezagutzen ditugun baliabide bakarrak UZEIk garatuak dira. Izan ere, euskararako ere tresna terminometrikoak garatzeko beharra ikusita, UZEIko ikerketa-taldeak lan-ildo berri bati ekin zion 2005ean. Lan-ildo horren lehen emaitzak dira TEIS *Termino Ezarpenaren Informazio Sistema*<sup>2</sup> eta komunikazio honetan aurkeztuko dugun IDITE tresna.

## 2. IDITE, euskal testuetarako lexiko-egiaztatzailea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea* programako 2005eko deialdian onartua izan zenean, IDITE proiektuaren lehen helburua UZEIk garatutako euLEX datu-base lexikalean oinarritutako lexiko-egiaztatzailea garatzea zen (Loinaz 2007).

IDITE proiektuak fase bat baino gehiago izan ditu, eta baliabide berriak gehitzen joan zaizkio jatorrizko lexiko-egiaztatzaileari. Baina proiektuaren hasiera hartan ezaugarri hauek zituen lexiko-egiaztatzailea garatzea zen lehen helburua:

- a) Euskarazko testuetan baztertzekoak edota gomendatzekoak ez diren formak identifikatzeko gauza izan behar zuen, baita testuetako hitz ezezagunak ere.
- b) Lexiko-egiaztatzaileak “zuzenean” erabili behar zuen datu-base lexikaleko informazioa. Izan ere, datu-base hori egunez egun berritzen baita, besteak beste,

<sup>2</sup> Aldez aurretik ezarritako terminoen ezarpena Interneteko testuetan aztertzea helburu duen proiektua da TEIS (Loinaz 2008; ZapiRAIN 2008).


Euskaltzaindiaren eta Terminologia Batzordearen gomendio eta arauen arabera; eta beraz, IDITE egiaztatzailearen emaitzek ere gomendio eta arau horiekiko etengabe eguneratuta egotea zen proiektuaren helburua.

### 3. IDITEren oinarria: euLEX eta UTH

Testuen analisisan gomendioak egiteko bi iturri nagusi erabiltzen ditu IDITEk: batetik, lexiko orokorreko informazioa biltzen duen euLEX datu-base lexikala eta, bestetik, UTH UZEIk bere terminologia-lanean hartutako erabakien bilduma historikoa.

#### 3.1. euLEX datu-base lexikala


Etengabe eguneratzen den datu-base honen iturri nagusia Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak dira (*Hiztegi Batua*, Euskal Onomastikaren Datutegiko pertsona-izenak, leku-izenak, eta argitaratu berria den *Euskaltzaindiaren Hiztegia*), baita UZEIren *Sinonimoen Hiztegia*, corpusetan, entziklopedietan eta sarean aurkitutako eta gaur ezinbesteko diren hainbat sarrera ere.



#### 2. irudia. euLEX datu-base lexikala, kontsulta-interfazearen itxura

Gaur egun, 128.200 sarrera baino gehiago biltzen ditu euLEXek; horietatik, ia 106.000 hiztegi-sarrerak dira. Gainerako sarrerak morfemak eta hizkuntza naturalaren prozesamendurako egokitutako forma deklinatuak nahiz forma jokatuak dira.


euLEX lexiko orokorrari buruzko datu-basea denez, biltzen dituen hiztegi-sarrerak gehienak lexiko orokorrekoak dira (91.306), baina erabilera orokorrekoak ere izan daitezkeen 14.427 termino ere biltzen ditu.



3. irudia. euLEX, lexikoen banaketa

Izan ere, jakina denez, gerta daiteke espezialitate-hizkerako forma bat lexiko orokorrean ere erabiltzea; esate baterako, hiztegi orokorretan ere aurki daitezke hainbat gaixotasun-izen. Hori dela-eta, euLEXek lexiko espezializatuko forma batzuk ere biltzen ditu.

Baina euLEXek ez ditu hiztegi-sarrerara “onak” bakarrik biltzen. Onak bezain garrantzitsuak dira bigarren maila batean ematekoak edo baztertzekoak direnak, eta horiek detektatu eta erabilera zuzenera bideratzen ditu euLEXek. Guztira, 8.931 forma lexikalek dute *erabili* edo *hobe* marka:



4 irudia. euLEX, hobespen-markak dituzten formak


IDITE aplikazioak euskarazko testuetan lexiko orokorra eta/edo terminoak automatikoki detektatzen ditu, baita hitz anitzeko unitateak direnean ere, eta IDITEren beraren oinarri diren hiztegi-tako sarrerekin alderatzen ditu.

### 3.2. UTH

HNPrako etiketatutako datu-basea da UTH, UZEIk terminologia-jardunean hartutako erabakiak biltzen dituena. Besteak beste, hobespen-erabakiak biltzen ditu, erabaki horien datarekin batera. Jakina, datu-base honetan jasotako termino bakoitza zein arlo tematikori dagokion ere erregistratzen da.

Baztertzekoak diren terminoek *erabili* marka dute, eta onartutakoak izan arren hobesten ez diren terminoek, berriz, *hobe* marka dute UTHn.

Guztira, 3.607 formek dute hobespen-marka bat. Beraz, euLEXekoak baino askoz gutxiago dira (8.931).



5. irudia. UTH, hobespen-markak dituzten formak

### 4. Lexiko-egiaztatzailearen oinarritzko eginbideak

Bere iturri lexikaletan jasotako erabilera-marketan oinarritzen ditu IDITEk lexikoa hobetzeko proposamenak. Euskarazko testuaren analisia egitean, IDITEk baliabide lexikoetan erabilera-oharra daukan hitzik badagoen ala ez egiaztatzen du, UZEIk garatutako tLEMA lematizatzailea baliatuz.

Lexiko orokorra soilik edo lexiko orokorra eta espezializatua har ditzake kontuan IDITEk testu bat aztertzerakoan. Erabilera-oharra (*hobe* edo *erabili* oharra) duen formarik aurkituz gero, forma hobe edo erabili beharrekoa zein den proposatzen du analisiaren emaitzan.

Hitz bakarreko terminoek gain hitz anitzeko terminoak ere detektatzen eta kontuan hartzen ditu proposamenak egiterakoan (adibidez, *adin txikiko* erabili *adingabe*).

Lexiko orokorra eta espezializatua kontuan hartuz egiten bada analisia, gerta daiteke bi lexiko horien artean diskordantzia egotea: alegia, posible da lexiko batean forma bat egokituz jotzea, eta, aldiz, beste lexikoan forma horrek berak *hobe* edo *erabili* marka izatea. Hala bada, horren inguruko xehetasunak eskaintzen dizkio IDITEk erabiltzaileari.

Iturri lexikoa espezialitate-terren batekoa denean sailkapena ere zehazten du IDITEk. Izan ere, baliteke espezialitate-arlo baterako egokia den hobespen bat (esate baterako, *akats* erabili

*errore* Matematika eta Estatistika arloan) egokia ez izatea beste espezialitate-arlo batean, edota lexiko orokorrean.

Gainera, IDITEk ezagutu ez dituen hitzen zerrenda ematen du analisiaren emaitzetan. Eginbide hori erabilgarria izan daiteke ez soilik akats tipografikoak edota ortografikoak identifikatzeko, baita oraindik lexikoetan sartuta ez dauden hiztegi-sarrera berriak identifikatzeko ere. Horren osagarri gisa erabil daiteke, gainera, TermiGai termino-hautagaien identifikatzailea, tLEMA lematizatzailea eta patroi morfosintaktikoak baliatzen dituen (UZEI 2013).

## 5. Lexiko-egiaztatzailearen eginbide aurreratuak

Erabiltzaileak hiztegi pertsonala sor dezake IDITEnet kontsulta-interfazearen bidez, lexiko orokorreko nahiz espezializatuko sarrera berriak gehituz. Erabilera-oharrak izan ditzakete (*erabili* eta *hobe* markak) sarrera horiek.

Gainera, hiztegi-sarrera berriak gehituzerakoan, zein espezialitate-hizkeratakoak diren zehatz dezake erabiltzaileak edo lexiko orokorreko gisa marka ditzake.

Azkenik, erabiltzaileak bere hiztegi pertsonala osorik bistara dezake, edota bilaketak egin ditzake bertan.

## 6. Kontsultarako interfazea eta emaitzak

IDITE egiaztatzailea linean erabil daiteke, IDITEnet kontsulta-interfazearen bidez. Arbelean kopiatutako edozein testu itsats daiteke zuzenean kontsulta-eremuan, edo nahiago bada, arakatzzailearen bidez dokumentuak osorik karga daitezke.

IDITEk erabiltzen dituen iturri lexikoak etengabe eguneratzen dira Euskaltzaindiak argitaratzen dituen arauekin eta Terminologia Batzordearen hobespenekin, besteak beste. Horrek bermatzen du IDITEnen analisia ere eguneratuta egotea.


Hain zuzen ere, hori dela-eta, beste erakunde batzuen artean, Euskaltzaindiak bere lanen arauetara adostasuna egiaztatzeko aukeratua du IDITEnet.

## 7. Adibide praktikoak

### 7.1. Banakako testuak

Wikipediaren euskal bertsioko sarrera bat hartu dugu, ausaz, IDITEk egiten duen analisiaren adibide gisa erabiltzeko. Gure kasuan *higadura* sarrerako testuaren gainean egin dugu saioa.

Hasteko, lexiko orokorra soilik kontuan hartuz egiaztatu dugu testua. Wikipediatik testua kopiatu eta IDITEnen kontsulta-interfazean itsatsi ondoren emaitza hau eskuratu dugu:



The screenshot shows the IDITE web application interface. At the top left is the 'idite' logo. At the top right is the UZEI logo (Terminologia eta Lexikografia Zentroa). Below the header is a navigation bar with 'Azterketaren emaitza' and buttons for 'Edukia' and 'Laguntza'. The main content area features a table with columns: Par/Es/Hit, Forma, Lema, Hiztegia, Proposamena, Saila, and An. Below this table is a smaller table titled 'Hitz ezezagunak' and 'Zenbatetan'.

Par/Es/Hit	Forma	Lema	Hiztegia	Proposamena	Saila	An
14 / 2 / 11	liz-paper	liz-paper	euLEX	erabil <b>lizpaper</b>		
16 / 2 / 10	kristalizatzeko	kristalizatu	euLEX	erabil <b>kristaldu</b>		
25 / 3 / 15	desertu	desertu	euLEX	hobe <b>basamortu</b>		

Hitz ezezagunak	Zenbatetan
esekipenean	1
Makhtesh	1
higagarritasun	1

At the bottom left of the interface is a button labeled 'Sartu testu berria'.

## 6. irudia. IDITEren emaitza, lexiko orokorra soilik kontuan hartuz

Adibide honen emaitzetan ikus daitekeenez, IDITEk ez ditu hitz bakarreko unitateak soilik detektatzen (adibidez, *kristalizatzeko*), eta hitz anitzeko unitate lexikalak ere ezagutzen ditu (adibidez, *liz-paper*). Kasu honetan, esaterako, *lizpaper* forma proposatzen du, hori baita Euskaltzaindiak arautuko forma (86. arauan).

Analisiaren emaitzetan testu-hitz bakoitzaren kokapena zehazten da (paragrafoa, esaldia, hitza), testuan nola agertzen den (forma), forma bakoitzari dagokion hiztegi-sarrera (lema), analisirako erabilitako lexikoa (kasu honetan euLEX), egiaztatzaileak proposatzen duen forma, eta azkenik, testu-hitzaren analisi morfologikoa.

IDITEk ezagutu ez dituen hitzak beste zerrenda batean eskaintzen dira, kasuan kasuko agerraldi-kopuruarekin. Gure adibidearen emaitzetan *Makhtesh* izen berezia da, eta *esekipen* eta *higagarritasun* izen arruntak ez daude egiaztatzailearen lexikoetan (*esekidura* eta *higakor* arautu ditu Euskaltzaindiak).

Espezialitate-hizkerako arauak eta gomendioak kontuan hartuz analizatzen badugu testu bera, aurreko emaitzez gain, beste forma batzuen inguruko proposamenak egiten dizkigu IDITEk.



Par/Es/Hit	Forma	Lema	Hiztegia	Proposamena	Saila
7 / 3 / 7	uharrek	uhar	euLEX	forma egokia	
7 / 3 / 7	uharrek	uhar	UTH	forma egokia	Geografia
7 / 3 / 7	uharrek	uharre	UTH	erabili <b>uhar</b>	Geografia
14 / 2 / 11	liz-paper	liz-paper	euLEX	erabili <b>lizpaper</b>	
16 / 2 / 10	kristalizatzeko	kristalizatu	euLEX	erabili <b>kristaldu</b>	
25 / 1 / 21	baso-soiltzea	baso-soiltze	euLEX	forma egokia	
25 / 1 / 21	baso-soiltzea	baso-soiltze	UTH	hobe <b>deforestazio</b>	Nekazaritza Abeltzaintza
25 / 3 / 15	desertu	desertu	euLEX	hobe <b>basamortu</b>	

Hitz ezezagunak	Zenbatetan
esekipenean	1
Makhtesh	1
higagarritasun	1

7. irudia. IDITEren emaitza, lexiko orokorra eta espezializatua kontuan hartuz

Irudian ikusten denez, Geografiako *uhar* eta Nekazaritza/Abeltzaintzako *baso-soiltze* lemetarako forma egokiagoak proposatzen ditu IDITEk. Izan ere, *uharre* e. ***uhar*** erabaki zuen UZEIk bere terminologia-jardunerako<sup>3</sup> eta *baso-soiltze* h. ***deforestazio*** erabaki du Terminologia Batzordeak *Ingurumen hiztegi entziklopedikoa* aztertu zuenean<sup>4</sup>.

Baina lexiko orokorrerako bi forma horiek egokiak direla ere zehazten du IDITEk.

## 7.2. Testu-masa handien analisia

IDITEk testu-masa handiak azter ditzake, eta hori baliagarria izan daiteke, besteak beste, hiztegi-tako eta testu-liburu-tako lexikoaren diagnostikoa egiteko.

### 7.2.1. Gai teknikoetako lagina

Komunikazio honetarako lagin bat osatu dugu, adibide gisa, Wikipediaren euskal bertsioiko 1.000 sarrera hautatuta; guztira, 303.377 hitzekoa. Hautatu ditugun sarrera guztiak zientzia-arlokoak dira, eta honela banatzen dira sailkapenaren arabera:

<sup>3</sup> Ikus *OEH*.

<sup>4</sup> EUSKO JAURLARITZA. *Euskalterm terminologia banku publikoa* [Interneteko helbidea: <http://www.euskadi.net/euskalterm>; 2013-02-13an irakurria].

Astronomia	100
Biologia	100
Fisika	100
Geologia eta Meteorologia	100
Informatika	200
Ingurumena	100
Kimika	100
Matematika eta Estatistika	100
Medikuntza	100

1. taula. Wikipediatik erauzitako 1.000 sarrerak, gai tematikoen arabera

Ikus daitekeenez, arlo bakoitzeko, 100 sarrera hautatu dira, *Informatika* sailean izan ezik: azken hamarkada hauetan arlo horretako terminologia hainbat erakunderen artean adostuz finkatzeko egin den saio bateratua kontuan hartuta<sup>5</sup>, 200 sarrera hartzea egoki iruditu zaigu.

Halere, argi esan behar dugu lagin honen analititik ez dugula inolako ondoriorik atera nahi Wikipediaren euskal bertsioiko lexikoaren kalitateari buruz, laginaren hautaketa, esan bezala, ausazkoa baita eta helburu zientifikorik gabea.

Bestalde, arlo tematiko horiek esleitzeko zailtasunak izan ditugu zenbaitetan, eta horrek ere baldintza dezake analisiaren emaitza.

Wikipedian sarrerek duten kategoria baliatu dugu laginaren bederatzi arlo tematikoen araberrako sailkapena osatzeko, baina Wikipediako euskal bertsioan sarrera guztiek ez dute kategoriarik. Horixe gertatzen da, edo azterketa egin genuenean behintzat hori gertatzen zen, *iodoformo* (Kimika), *pulsar* (Astronomia) eta beste hainbat sarrerarekin. Horrelakoei Euskaltermen sarrera horiek duten sailkapena esleitu diegu.

Edonola ere, arlo tematikoen arteko muga ere nahiko labainkorra izan daiteke zenbaitetan, eta horrek sailkapena bera baldintza dezake.

### 7.2.2. Emaitzak.

IDITEk laginean erabilera-ohardun formak identifikatu ondoren, maiztasunik handiena duten 50 formak hartu ditugu kontuan. Gure helburua da erakustea IDITEren emaitza baliagarria izan daitekeela neurtzeko testu batek, edo kasu honetan, testu-multzo batek lexikoaren inguruko arau/gomendioak zenbateraino betetzen dituen.

Izan ere, erabilera-ohar horien oinarrian dagoen arau, gomendio edo erabakiaren datak testuetako lexikoaren ezarpenari buruzko informazio adierazgarria eman dezake.

<sup>5</sup> Horren adibide dira, besteak beste, herri-administrazioek, eta bereziki, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta egin diren lokalizazio-saio bateratuak.

### 7.2.2.1. Erabili marka duten formak

1.000 sarrerako lagin horretan IDITEk *erabili* marka duten lexiko orokorreko 475 forma aurkitu ditu eta lexiko espezializatuko 67.

Bestalde, *erabili* marka duten terminoen artean lexiko orokorrean halako markarik ez dutenak 19 dira. Horrek esan nahi du gainerako formak, 48, bai lexiko orokorrean bai espezializatuan agertzen direla.

Hauek dira, hurrez hurren, lexiko orokorreko eta lexiko espezializatuko *erabili* marka duten formen artean, maiztasunik handiena dutenak:

Maiztasuna	Erabilera-oharra
61	<i>batezbesteko</i> e: <i>batez besteko</i>
45	<i>ekipo</i> e: <i>ekipamendu/talde</i>
28	<i>kontutan hartu</i> e: <i>kontuan hartu</i>
21	<i>distilazio</i> e: <i>destilazio</i>
17	<i>beti ere</i> e: <i>betiere</i>
15	<i>orohar</i> e: <i>oro har</i>
15	<i>emititu</i> e: <i>igorri/jaulki</i>
15	<i>alternatibo</i> e: <i>aldizkako/txandakako/ordezko</i>
14	<i>zentru</i> e: <i>zentro</i>
13	<i>norantza</i> e: <i>noranzko</i>

2. taula. Lexiko orokorreko *erabili* markak (maiztasunik handienekoak)

Maiztasuna	Erabilera-oharra	Arlo tematikoa
63	<i>ingurugiro</i> e: <i>ingurumen</i>	Biologia
61	<i>batezbesteko</i> e: <i>batez besteko</i>	Matematika eta estatistika
47	<i>akats</i> e: <i>errore</i>	Matematika eta estatistika
35	<i>altuera</i> e: <i>garaiera</i>	Matematika eta estatistika
22	<i>potentzia</i> e: <i>berretura</i>	Matematika eta estatistika
14	<i>lurrin</i> e: <i>lurrun</i>	Fisika
13	<i>norantza</i> e: <i>noranzko</i>	Matematika eta estatistika
9	<i>salmonelosi</i> e: <i>salmonellosi</i>	Medikuntza
8	<i>ordenadore</i> e: <i>konputagailu/ordenagailu</i>	Informatika
8	<i>motore</i> e: <i>motor</i>	Biologia

3. taula. Lexiko espezializatutako *erabili* markak (maiztasunik handienekoak)

Esan bezala, lexiko espezializatuko erabilera-ohar bakoitzaren ondoan hura zein arlo tematikotan den pertinetza adierazten du IDITEk. Horrek ez du esan nahi beste arlo batean forma horiek bigarren mailakoak direnik. Adibidez, nahiz eta *Matematika eta Estatistikan* “akats erabili **errore**” proposatzen duen IDITEk, horrek ez du esan nahi akats egokia ez denik beste arlo batzuetan, ezta *Matematikan eta Estatistikan* erabil ez daitekeenik ere: zenbait kasutarako arlo horretan egokia ez dela baino ez du adierazten IDITEk. Horrela, Euskalermen *erantzuneko akats* eta *proiekzio-akats* proposatzen dira *Matematika eta Estatistika* arloan; baina ‘kalkulu hurbildu batetik balio zehatzera dagoen aldea’ adierazteko *errore* soilik proposatzen du Euskaltermek.

Beraz, IDITEren proposamenak testuan berriro egiaztatu behar ditu erabiltzaileak, batez ere, lexiko orokorraz gain lexiko espezializatua ere kontuan hartuz egin bada testu-azterketa, horrelakoetan kasuan kasuko adiera erabakigarria izan baitaiteke proposatutako formaren pertinentziarako.

#### 7.2.2.2. Hobe marka duten formak

IDITEk *hobe* marka duten lexiko orokorreko 117 forma aurkitu ditu aztergai dugun laginean, eta lexiko espezializatuko 17.

Hauek dira, hurrez hurren, lexiko orokorreko eta lexiko espezializatuko *hobe* markako erabilera-ohar errepikatuenak:

Maiztasuna	Erabilera-marka
81	<i>erabilpen</i> h: <b>erabilera</b>
63	<i>ingurugiro</i> h: <b>ingurumen</b>
59	<i>momentu</i> h: <b>memento</b>
34	<i>nahastu</i> h: <b>nahasi</b>
32	<i>gainontzeko</i> h: <b>gainerako</b>
32	<i>aurreikusi</i> h: <b>aurrez ikusi</b>
31	<i>defendatu</i> h: <b>-en alde egin/aldeztu/babestu</b>
20	<i>ekoiztu</i> h: <b>ekoitzi</b>
19	<i>konposaketa</i> h: <b>konposizio</b>
18	<i>ikerlari</i> h: <b>ikertzaile</b>

4. taula. Lexiko orokorreko *hobe* markak (maiztasunik handienekoak)

Maiztasuna	Erabilera-oharra	Arlo tematikoa
152	<i>kutsadura</i> h: <b>kontaminazio</b>	Biologia
23	<i>imandu</i> h: <b>magnetizatu</b>	Fisika
9	<i>soinbera</i> h: <b>molusku</b>	Biologia
7	<i>kanoi</i> h: <b>bideo-proiektagailu</b>	Informatika
5	<i>disco malgu</i> h: <b>diskete</b>	Informatika
4	<i>ernalkuntza</i> h: <b>ernalketa</b>	Biologia
3	<i>kutsadura atmosferiko</i> h: <b>airearen kutsadura</b>	Biologia
3	<i>ingurumenaren babes</i> h: <b>ingurumena babeste</b>	Biologia
3	<i>garo</i> h: <b>iratzte</b>	Ingurumena
3	<i>almendra</i> h: <b>arbendol</b>	Biologia

5. taula. Lexiko espezializatuko *hobe* markak (maiztasunik handienekoak)

Erabilera-marka batzuk errepika daitezkeela argitzea komeni da. Esate baterako, gorago ikusi dugunez, *ingurugiro* formak *erabili* marka zuen *Biologiaren* arlorako, hala hobetsi duelako UZEIk bere terminologia-jardunerako. Baina Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan ingurugirok hobe* marka duenez, IDITEk ere *hobe* markarekin ematen du lexiko orokorrerako, eta *ingurumen* erabiltzea proposatzen du.

### 7.2.3. Lexikoaren egiaztapena, ezarpena neurtu aurretiko urrats


IDITEren lexiko-egiaztapenetik abiatuta, kasuan kasuko testuetan betetzen ez diren arauak noizkoak diren neur daiteke, eta horren arabera esan liteke testu horretan lexikoaren inguruko arau eta gomendioek ezarpen handia duten ala ez.

Aurkezpen honetarako, erabilera-marken oinarrian dauden arau, gomendio eta erabakien datak urteka bildu ditugu.

Horretarako, lexiko orokorraren kasuan Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* hiru liburukien argitalpen-datak hartu ditugu kontuan; alegia, 2000, 2008 eta 2010. Izan ere, publiko orokorrak urte horietan izan baitzuen arau eta gomendio horien berri, eta beraz, pentsatzekoa da urte horietatik aurrera izan dutela eragina euskal testugintzan.

Halere, kontuan hartu behar da *Hiztegi Batuko* iritzi-emaileek lehenagotik izan dutela *Hiztegi Batuko* Lantaldearen proposamenen berri, eta horrek, neurri batean behintzat baldintzatu ahal izan duela hiztunen erabilera. Baina ez dugu zalantzarik iritzi-emaileei aldiro-aldiro banatu zaien informazioak baino *Hiztegi Batuan* hiru argitaraldi horiek eragin handiagoa izan dutela lexikoaren ezarpenean. Bestalde, gogoratu behar da 2010ean *Hiztegi Batu Oinarriduna* izeneko datu-baseak edonoren eskura jarri zuela Euskaltzaindiak araututako formen inguruko informazioa (*Hiztegi Batuko* Prestalan Taldeak haien inguruan egindako txostenak, *Hiztegi Batuko* Lantaldearen proposamenak, euskaltzain osoen erabakiak, eta abar).

Emaitza guztiak ez ditugu alderatu arau/gomendioen datarekin, soilik maiztasun handiena duten lehen 50ak:




8. irudia. Lexiko orokorreko *erabili* markako 50 forma erabilienak, dataren arabera.

Lexiko orokorrari dagokionez, *erabili* markako gehienak, 30, Euskaltzaindiak duela dozena bat urte araututako/proposatutako hiztegi-sarrerak dira.

Kontuan hartu behar da maiztasun handieneko 50 *erabili* markako forma horien artean, guztira, 10 forma ez direla sailkatu *Hiztegi Batuaren* hiru liburukien arabera, haietan agertzen ez direlako. Horiek *Bestelakoak* kategorian sailkatu ditugu.

Horrelakoa da, adibidez, *norma e. arau*. Kasu horretan, Hiztegi Batuko Lantaldeak *norma* baztertzea proposatu zuen, *arau* nahikoa zelakoan, eta hala jaso zen iritzi-emaileei banatu zitzaizen zerrendan. Baina *norma* ez da agertzen *Hiztegi Batuaren* hiru liburuetan, eta beraz, ez dugu erabilera-ohar hori sailkatu 2000, 2008 edo 2010. urteko erabakien artean, *Bestelakoak* kategorian baizik.


Lexiko orokorreko *hobe* markako 50 forma erabilien artean ere gehienak, 44, Euskaltzaindiak 2000. urtean arautu/proposatutakoak dira:




9. irudia. Lexiko orokorreko *hobe* markako 50 forma erabilienak, dataren arabera

Antzeko datuak atera daitezke lexiko espezializatuko erabilera-markei dagokienez ere. Kasu horietan bost urteko multzoetan bildu ditugu IDITEren egiaztapen-emaitzak: 2000 urte artekoak, 2001-2005, 2006-2010, eta 2011tik aurrerakoak.

Hurrenez hurren, hauek dira *erabili* eta *hobe* markako forma erabilien datuak, urtearen arabera antolatuta:



10. irudia. Lexiko espezializatuko *erabili* markako 50 forma erabilienak, dataren arabera



11. irudia. Lexiko espezializatuko *hobe* markako 50 forma erabilienak, dataren arabera

Ikusten denez, hizkera espezializaturako erabilera-oharrak hizkera orokorrekoak baino orekatuagoak dira kasuan kasuko erabakien datari dagokionenez, edo behintzat ez dirudi urtemultzo jakin bat nagusi denik lagin honetan.

## 8. Ondorio gisa

Lexikoaren erabilera erreala neurtzeko lanak ezinbestekoak dira, gure ustez, lexiko orokorraren eta terminologiaren normalizazioari eskainitako baliabideak ahalik eta modurik eraginkorrenean erabiltzeko, bereziki, baliabide horiek mugatuak direla kontuan hartuta. Izan ere, lexiko orokorraren eta terminologiaren ezarpenari buruzko datuak lagungarriak izan daitezke arrakasta izateko aukera handiagoak izango dituzten proposamen eta gomendioak egin ditzaten erakunde arauemaileek.

Ezarpenari buruzko ikerketa proiektu estrategikoa da araugintzaren ardura duten erakundeentzat, eta, oro har, datozen urteetan arlo horretan egingo diren lanak funtsezko baliabidea izango dira euskal lexikografiarentzat eta terminologiarentzat.

Komunikazio honetan ikusi dugunez, IDITEk testu-masa handien lexikoa egiazta dezake, lexiko orokorrerako edota lexiko orokor eta espezializatutakorako unean-unean emandako arau/gomendioak kontuan hartzen ditu testuak aztertzerakoan, hitz bakarreko nahiz hitz anitzeko unitate lexikoak identifikatzen ditu, lexikoa eremu tematikoaren arabera egiaztatzeko aukera ematen du, eta lexikoarentzat emandako arau/gomendioekin alderatzen du hiztunen erabilera.

Eginbide horiek direla-eta, testu errealean lexiko orokorraren eta terminoen ezarpena aztertzeko erabil daiteke IDITEk eskaintzen duen informazioa, TEIS *Termino Ezarpenaren Informazio Sistemaren* osagarri gisa.

## 9. Erabiltzaileak gaur egun

Oraingoz, Euskaltzaindiak, hainbat administrazio publikoren itzulpen-zerbitzuek eta hainbat argitaletzek erabiltzen dute IDITEnet kontsulta-interfazea. Erakunde horiek guztiak UZEIrekin duten lankidetzaren edota harreman komertzialaren ondorioz baliatzen dute tresna hau.



Jakina, UZEIk berak ere IDITEnet erabiltzen du bere testu-ekoizpen osoaren egokitasuna egiaztatzeko, eta bereziki, hiztegigintzan, itzulpengintzan eta ikerketan.

### Erreferentzia bibliografikoak

- 179/2002 DEKRETUA, uztailaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordearen antolamendu eta funtzionamenduaren araudia aldatzeko eta bateratzeko zen Dekretuaren aldaketa egiten duena. EHAA - 2002ko abuztuak 7, asteazkena. 148. zk.
- AUGER, P. (1986): “Francisation et terminologie : l’aménagement terminologique”, in Sager, J.C.; Rondeau, G. (1986): *Termia 84 : terminologie et coopération internationale : la terminologie, outil indispensable au transfert des technologies. Colloque international de terminologie*, Luxemburg, 27-29 août 1984. Québec: Gistern, 47-55.
- CABRÉ, M. T. (1993): *La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones*, Barcelona: Antártida, Empúries.
- EUSKO JAURLARITZA. HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2008): “Terminologia Batzordea. 2008ko jarduketa-plana”. [Interneteko helbidea [http://www.euskara.euskadi.net/r59738/eu/contenidos/informacion/6503/eu\\_2415/adjuntos/TB2008Jarduketa-plana.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59738/eu/contenidos/informacion/6503/eu_2415/adjuntos/TB2008Jarduketa-plana.pdf); 2013-02-25ean irakurria]
- ISO (2000): *ISO 704: 2000. Terminology work - principles and methods*.
- ISO (2001): *ISO 15188:2001. Project Management Guidelines for Terminology Standardization*.
- LOINAZ, M. (2007): “Metodología para la revisión sistemática de términos mediante la utilización de corpus bilingües y herramientas de PLN (Proyecto de investigación IDITE)”. In Asociación Española de Terminología (edit.): *Lenguas de especialidad y lenguajes documentales VII Jornada de la Asociación Española de Terminología*, Madrid, 2007, 51-59.
- LOINAZ, M. (2008): "Estudio de un sistema de medición y diagnóstico de la implantación de la terminología en euskera (proyecto de investigación TEIS)". In Fargas, F. Xavier (2008): *Espais Terminològics 2007. Neologia terminològica: el tractament dels manlleus*, Barcelona: Eumo Editorial, Termcat Centre de Terminologia, 167-174.
- NIC PHÁIDÍN, C.; Ó CLEIRCÍN, G.; BHREATHNACH, Ú.: “Building on a terminology resource – the Irish experience”. [Interneteko helbidea [http://www.focal.ie/pdf/FIONTAR\\_2010\\_NicPhaidin\\_C.pdf](http://www.focal.ie/pdf/FIONTAR_2010_NicPhaidin_C.pdf); 2013-02-13an irakurria]
- QUIRION, J; LANTHIER J. (2006): “Intrinsic Qualities Favouring Term Implantation: Verifying the Axioms”, in Lynne Bowker (zuz.). *Lexicography, Terminology, and Translation. Text-based Studies in Honour of Ingrid Meyer*, Ottawa, PUO, 107-118.
- UNESCO (2005): *Guidelines for Terminology Policies. Formulating and implementing terminology policy in language communities*, Paris: UNESCO.
- UZEI (2013): “TermiGai, termino-hautagaiak automatikoki identifikatzeko tresna”. [Interneteko helbidea <http://www.uzei.com/antbuspre.asp?nombre=3446&cod=3446&sesion=14>; 2013-02-27an irakurria].
- ZAPIRAIN, J. (2008): “Terminologia hizkuntza-kudeaketaren baitan” in Senez, 35, 103-112.